

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2010eko azaroaren 24a. VIII. urtea. 2.128. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

«Errepublikaren eta askatasunaren alde lan egindakoak ahaztu ditugu»

36ko gerran Frankismoak eraildako pertsonen «izen ona aldarrikatzeko» oroigarri bat jarriko dute Tolosako kanposantuan herri ekimen bati esker

San Blasen 32 tolosar fusilatu zituztela gogoratu du Juantxo Agirre Mauleonek; hauek eta beste toki batzuetan hildako herritarrak omenduko dituzte monumentuarekin **o3**



Agirre Mauleon Lizardiren panteoiaren ondoan, atzealdean duen belazean jarriko dute oroigarria. A. IMAZ



1. TERAPIA

Jagoba Astiazaran Musikaria

«Harridura eta talka dira musikarekin lortu nahi duguna»

Abenduaren 10ean Leidorren estreinatuko du Ibarako Alurrek 'Oinazez' ikuskizun berria **o7**



→ **Japoniako kondairak gurean.** Larunbatean hasiko da Titirijai eta abenduaren 5era bitarte 19 txotxongilo talderen 80 emanaldi izango dira. Aurtengoa Japonia da herri gonbidatua. **o2**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra

Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Ikuskizuna hastear da

Larunbat honetan hasi eta abenduaren 5era arte 19 antzerki talde ariko dira Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdian

Japonia da gobidatua; lau talde ariko dira eta erakusketa jarriko dute Aranburu jauregian

Iñigo Terradillos Tolosa

Larunbat honetan hasi eta abenduaren 5era bitarte irudimenez beteriko txotxongiloen ikuskizun magiaz eta liluraz beteko dira Tolosako eszenatokiak. 28. Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiak 10 herrialdeetatik etorritako 19 antzerki talderen lanak hartuko ditu. Horietatik guztietatik, bat nabarmendu daiteke, Japonia, aurtengo gonbidatua. Hain zuzen ere, bertako bi talde tradizional eta bi talde garaikide ariko dira emanaldiak eskaintzen, eta horretaz gain, Aranburu jauregian Japoniara irekiko dute

leioha, bertako 200 txotxongilo ingururekin osaturiko erakusketa berezian.

Krisiaren eragina

Osagai guztiak ditu, beraz, Tolosako Ekinbide Etxeak bultzatzen duen ekimenak ikusleek espero duten maila emateko. Izan dute, baina, zailtasunik aurtengo egitaraua prestatzerako orduan, «krisiak gogor jo baitu».

Ana Arretxe TEEko lehendakariak atzo eginiko aurkezpenaren azaldu zuenez, Tolosako Udalak eta Kutzak diru laguntza mantendu eta Espainiako Gobernuak «zertxobai» igo duen arren,

Eusko Jaurlaritzak %11 murriztu du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, %25. Ondorioz, murrizketak egin behar izan dituzte jaialdian; «Pasa den urtean baino %20 konpainia gutxiago ekarri ahal izan ditugu, Tolosan %13 emanaldi gutxiago eta Gipuzkoa eta Bizkaian egiten dugun zirkuituan emanaldien kopurua %30 jaitzi da, eta horrekin, diru-sarreak ere murriztuko ditugu».

Argentina, Espainia, Euskal Herria, Frantzia, Herrialde Katalanak, Italia, Japonia, Kanada, Kuba eta Suitzatik etorriko diren 19 txotxongilo taldeek 80 emanaldi eskainiko dituzte. Horietatik, 56 Tolosan izango dira, eta 24 zirkuituaren baitako herrietan. Tolosatik inguruko 34 herritako 60 ikastetxetatik etorritako 6.400 gaztetxo inguru igaroko dira antzezlanak ikustera.

Antezlan horietako bi, gainera, Tolosan estreinatuko dituzte, Behi Bis euskaldunen *Paperezko istorioak* eta Frantziako Le Lutin Theatre D'images taldearen *Zerumugako lerroak*.

«Ekarpen handia»

Jokin Azkue Tolosako alkateordeak TEEren «lan handia» nabarmendu zuen Titirijaiako aurkezpenaren: «eurei esker Tolosako kulturako ekoizpena asko indartu delako». Halaber, Topic zentroaren proiektua bere horretan geldirik geratu gabe, «aurrera indar-



Japoniako lau talde ariko dira aurtengo Titirijai jaialdian. IÑIGO TERRADILLOS

tsu jarrai dezan» ideia berritzaileak izaten badakitela ere azpimarratu zuen.

Mikel Irizar Kutzako ordezkariak fantasia eta sormena lantzearen garrantzia nabarmendu zuen, «umetan sortzaile denak aukera handia baitu handitzen denean berritzaile eta eraldatzaile izateko». Horregatik, gisa honetako ekimenak laguntzen jarraitzeko apustua egingo dutela adierazi zuen.

Japoniar gastronomia

Japonia da aurtengo gonbidatua, eta bertako txotxongiloen tradizioaz gehiago ikasteko aukera izango da, baina, baita bertako gastronomiaz ere. Izan ere, larunbatean, Slow Food ekimenaren baitan, euskal barazkiak japoniar erara prestatuko dituzte, eta horiek dastatu ahalko ditu nahi duen orok. Halaber, datorren asteartean, hilaren 30ean, Solana 4 tabernan sushia jarriko dute.

Topic zentroaren lehen urtean 12.000 bisitari baino gehiago

Tolosako Ekinbide Etxea «oso pozik» azaldu da bere lehen urtean zentroak izan duen harrerarekin

12.000 bisitari baino gehiago izan baititu. «Jakin-min eta interes handia piztu du zentroak, eta bisitariak oso gustura izan direla eta ederki igaro dutela azaldu dute».

TEEko lehendakariaren arabera, horrek «bide onetik» doazela esan nahi du. «Bai museoan, bai erakusketetan, bai eta emanaldietan iritzi baikorrak jaso ditugu ikusleengatik, eta bide berean jarraitzea espero dugu».

Mundura zabalduz

Bestalde, Tolosako enbaxadore izan dela Txotxongiloen zentroa nabarmentzen du Ana Arretxek. «Izan ere, Topic-ek asko bidaiatu

du bere sorreratik, hori izan baita hasieratik genuen helburua. Euskal Herrian bertan hainbat gune eta azoketan izan gara, eta Espainian ere bai, Sevillan, esaterako».

Baina, urrutia ere egin dute bidaiak Tolosako zentroak. Shanghain izan da, eta bertako mundu mailako erakusketan lekua izan zuen, eta Seulen edota Charleville Mezieresen ere izan da, besteak beste. «Horregatik guztiagatik ere oso harro eta pozik gaude, nazioartean ezagutzera ematen ari garelako».

● **Albiste hau eta Titirijai aurkezpenaren ikus-entzunezkoa: tolosa.hitza.info**



TEEko, Tolosako Udaleko eta Kutzako ordezkariak, atzo, Topic-en. I.T.

I. Terradillos Tolosa

28. Titirijai Jaialdia Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren lehen urtemugarekin lotua dator. Tolosako Ekinbide Etxeko Lehendakariak adierazi duenez, «oso pozik» daude lehen urteak eman duenarekin. Eta ez da gutxiagorako, zentroko museoak



**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
LANPOSTU BATERAKO
DEIALDIA EGITEN DU**

LANPOSTUA:


• Hezkuntza Laguntzako Espezialista.

ESKAKIZUNAK HIRU HAUEK DIRA:

- Ondoko titulazioaren bat edukitzea:
 - Goi-Teknikaria Gizarte Integrazioan edo Haur Hezkuntzan.
 - Teknikari espezialista, gutxitu psikikoen hezitzailea.
 - Teknikari espezialista gizarte- adaptazioan.
 - Teknikari espezialista haurtzaindegietan.
 - Teknikari espezialista, haur hezitzailea.
- Magisteritza Titulua HH-n.

3. EGA.

CURRICULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali.
EPEA: AZAROAK 30. Argibide gehiagorako: 943 65 29 32



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbitzailea.** Jatetxe batek, sukaldeko garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar du. Asteburuetarako. 617 43 88 19.

OPARITZEKO

■ **Txakurkumeak.** Arratoi eta ehiza arraza nahasketa. Lau hilabete ete erdi dituzte. Deitu 645 70 68 21 zenbakira.



Juanxo Agirre Mauleon Tolosako San Blaseko kanposantuan, hainbat tolosar fusilatu zituzten paretaren ondoan. A. MAZ

Herri ekimen bati esker 36ko gerraren ondorioz Frankismoak eraildako tolosarrak oroituko dituzte herriko kanposantuan egingo duten monumentu batekin.

Askatasuneruntz

Rebeka Calvo Tolosa

Urteak ez omen dira alferrik pasatzen eta urteekin batera zenbait gertakari ere ez lirateke alferrik pasatzen utzi behar, baina mundua ez da perfektua, akatsak edonon ikusten dira. Tolosar talde batek, Udalaren laguntzarekin, hala ere, urteetan ahaztuak izan diren duintasuna berreskuratzeko ekimena abiarazi du, akatsak zuzentzeko urratsak eman behar baitira.

Egin dezagun atzera 74 urte eta kokatu gaitezen Tolosako San Blaseko kanposantuan. 36ko gerra garaia da, urte latzak. «Gerra Zibila eta Frankismoaren ondorioz hainbat tolosar erailda izan ziren gure herriko kanposan-

tuan. Garaiko erakunde demokratikoak eta giza eskubideak urratuak izan ziren eta Frankismoak hamarkada luzeetan desgertutako bizilagun hauen oroimena ahanzturaren hilobietara bota zuen», azaldu du Juanxo Agirre Mauleon Aranzadiko kideak. Agirre Mauleon tolosarra da eta herrian eraildako hauen guztien «duintasuna berreskuratzeko» lanean ari den taldean ari da buru-belarri. «Egun gure herriko kanposantuan frankista garaileen panteoia besterik ez dago, hain zuzen ere udalaren jabeagoa dena. Egoera honen aurrean, duintasuna eta justiziarengatik, Errepublika eta Euskal Herriko askatasunarengatik hildakoei oroimenaren monumentu bat eraikitzea giza legezkoa da» gai-

neratu du. Datuak ere eman ditu Agirre Mauleonek: 89 tolosar fusilatu zituzten, horietatik 32 San Blaseko kanposantuan, era berean tolosarrak ez ziren 19 pertsona ere erail zituzten bertan. Honekin batera, Gernikako eta Durango-ko bonbardaketetan zein Tolosan izandako leherketa baten ondorioz beste 4 tolosar hil ziren, eta beste 3 pertsona kontzentrazio-esparruetan.

Ezin kokapena zehaztu

Jakin badakigu fusilatzeak Tolosako kanposantuko ate nagusiaren ezkerrean dagoen paretan egin zituztela, nahiz eta urtean poderioz ezin izan diren zantuak topatu, ez eta hilobiak ere. «Teknikoki ezinezkoa da. Gure zaharrek, hala ere, pareta horretan

proiektilak ikusi izana kontatu izan dute», dio Agirre Mauleonek. «Datziko eta ahozko informazioa ez dira aurkitu eta Aranzadiko ikerlariak ezintasun horren lekuko dira. Urte hauetan guztietan bertan eraildakoak ahaztuak izan dira, «ez dugu ezer egin euren alde», eta beste alderdikoek berriz, «panteoia dituzte, kaleen izenak izan dituzte, sariak jaso dituzte...».

Agirre Mauleonek Trianguloa plaza erdian Frankoren alde hildakoen oroimenez zegoen monumentua ere ekarri nahi izan du gogora zentzu honetan. «Errepublikaren eta askatasunaren alde hildakoak berriz, ahaztuak izan dira, eta beraien izen ona aldarrikatzeko garaia da», gaineratu du Aranzadiko kideak.

Monumentua

San Blaseko kanposantuan fusilatutako guztien «izen ona» aldarrikatzeko, beraz, herri ekimen honek euren aldeko monumentu bat jarriko dute hilerrian. Toki onean egongo da, sarreratik oso gertu eta «Tolosako Herriak bere seme kuttunentzat duen panteoiaren ondoan», Lizardirenaren ondoan, hain zuzen.

Errepublika eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildakoei Monumentua otsailaren 26an inauguratuko dute. Honen aurretik Mikel Errazkinek gertakari hauen inguruan prestatu duen liburua aurrezpena izango da.

Monumentuan errepublikaren eta askatasunaren alde egiteagatik eraildako tolosar guztien izenak jarriko dituzte. «Monumentua era simple batean proiektatu da, espazioa altzairuzko hiru zutabeekin mugatuz, batean bi plaka eransten dira eta bertan hildakoen abizenak zerrendatzen dira. Altzairuzko beste bi zutabeetan sekzio borobileko zuloak sakabanatzen dira eta hauen aurrean karaitzezko zutarrak bat dago. Heriotza latzak burdinaren gogortasunarekin lotzen dira, pareta izaerarekin eta bertan balazuloen aztarnak, Tolosan ere beste hilerrietan fusilatzeak gauzatu ziren moduak adieraziz. Galtzairuzko plaka hauen aurrean zutarrak bat, indarkeria horren aurrean bizitza eta pertsonen balioa aldarrikatuz», azaldu du monumentuaren inguruan.

Honekin batera, Agirre Mauleonek bihar 19:30ean Tolosako udaletxeko pleno aretoan izango den *Gerra Zibilean emakumeen errepresioa* hitzaldira joateko gonbita luzatu du.

Aranzadiko Lourdes Herrastik eskainiko du eta bertan emakumeek Espainiako gerra nola bizitu zuten eta honen inguruan egindako ikerketen inguruan hitz egingo du, besteak beste.

Albiste honen inguruko bideoa www.tolosa.hitza.info/webgunean.

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEN EREDU BERRIA



JOSÉ LUIS ELOSUA
Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluko lehendakaria

"Gizarte Zerbitzuen gaineko lege berriaren bidez, adineko pertsonak bere ingurunean jarraitzea lortu nahi dugu, teknikoki posible den heinean, eta bere ingurutik atera beharrik ez izatea, horrek egoera animikoa eta sentimentala txartzea besterik ez baitakar".

"Etxez etxeko laguntza handitzea, etxebizitzak erabiltzaileen beharretara egokitzea, traba arkitektonikoak kentzea, belaunaldien artean elkartzasuna izatea eta laguntza sozio-sanitarioa edukitzea izango dira, besteak beste, adineko pertsonak beren familietan jarrai dezaten lagunduko duten elementuak".

Gipuzkoako Esparru-
Zerbitzuak eta Politikak



Gipuzkoako Foru Aldekoa
Esparru-Zerbitzuak eta Politikak

Joxe Mari Mendizabalen omenaldian 35 herri kirolari elkartuko dira

Igandean 11:30ean hasiko da ekitaldia; guztiak herriko frontoian elkartuko dira eta doan izango da

Eneritz Maiz Aduna

Astehenean hasita, Adunako Kultur Astean daude. Aurtengorako ere aste oparoa prestatu dute. Egunero-egunero ekitaldi ezberdinak dituzte. Gaur, lehenik eta behin haurrentzako ipuin kontalaria izango dute. 17:30ean hasiko da Oihana Etxegibelen ipuina. 20:00etan berriz heldunen txanda izango da. EHNE Sindikatuko ordezkarien eskutik hitzaldia izango dute. *Lehen Sektorea, produktu ekologikoak* izango da jorratuko duten gaia.

Bihar berriz, 20:00etan, Joseba Salvadorren liburuaren aurkezpen-hitzaldia izango da. *Karistaldien aztarnak* Adunako liburua da aurkeztuko duena. Eta ostiralean, 22:00etan *Sagararren denbora* bideo proiektioa eskainiko dute. Alfonso Etxegarai eta Kristiane Etxaluz, 25 urte deserritik itzultzen izango da.

Larunbatean ere, 12:00etan kantu jira egingo dute. Herrikoek gain, inguruko herrietakoak ere ibiliko dira kantuan. 17:00etan, Patxin eta Potxin pailazoaren txanda izango da eta 18:45ean, barrikotea egingo dute, jateko, taloak eta gaztaina erreak izango dituzte.



Iñaki Gorostidi antolatzaileetako bat izan da. E.MAIZ

Igandean, omenaldia

Aurten, Adunako Udalak eta Muskil elkarteak, martxoaren 28an zendu zen Joxe Mari Mendizabal herritarra gogoan izan dute. Kultur Asteari amaiera emateko, omenaldi xumea egingo diote herrian. Antolatzaile lanetan laguntzen ibili den Iñaki Gorostidirekin egon gara.

Adunako jaiotza eta aitzakaria eta urte askoan bizitu zeneko Leitzan lurperatu zuten. Omenaldi hau Adunako Udalak eta Muskil Elkarteak egiten diote eta urtea bukatu baino lehen omenaldia egingo da egokirik zuten biek. «Denbora gehiegi pasatzen utzi gabe, egoki ikusi zen Kultur Astearen barruan egingo da».

Lehenik eta behin familiarekin hitz egin zuten omenaldia egingo da egokirik zuten jakiteko eta ez zuten inongo arazorik jarri antolatzea erabaki zuten. Noski familia gonbidatu dute igandean herrira gerturatuzera.

Duela bi hilabete edo hasi zirela guztia lotzen azaldu digu. «Hone-lako ekitaldietarako inork ez du arazorik jartzen. Ez da zaila izan herri kirol munduko jendea bilitzea» dio. Bere izena ere zerrendan sartu du eta bi jasoaldi egite-rama animatuko da.

Gehiegi luzatu gabe, 90 minutuko saio izango dela aurreikusiko dute. Bertsolarien saioarekin hasi, agurra dantzatu eta familiarioroigarri eman ostean, herri kirolarien txanda izango da. Harri-jasotzaileek eta aitzakariak txandakatu, lan ezberdinak egingo dituzte. Erakustaldi polita izango da. Ondoren, 14:30ean Adunako bertan, Aburuza sagardotegian bazkaria izango dute.

Bazkarirako txartelak salgai daude eta hauek erosteko azken eguna bihar izango da. Aurrez erosiz gero, 30 euro ordaindu beharko da eta egunean bertan, 35 euro. Tiketak salgai honako lekuetan daude: Adunako Aburuza sagardotegian eta Uztartza jate-txean, Tolosako Kantabriko tabernan, Leitzako Harakindegia jate-txean eta Azpeitiako Mendizabal erretegiaren.

Egunari amaiera emateko, 18:00etan *Greban gaude!* antzez-lana izango dute.

↓ Joxe Mari Mendizabali omenaldia

HILAK 28, IGANDEA

- **11:30ean.** Hasiera emango zaio Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren agurrekin.
- **Jarraian.** Agurra dantzatu eta familiarioroigarri emango dizkiote.
- **Harri-jasotzaileak.** Mieltxo Saralegi, Iñaki Perurena, Inaxio Perurena, Zelai, Goenatxo, Ostolaza, Haimar Irigoien, Goikoe-

txea, Gorostidi, Urdax, Landar-bide, Izeta II, Izeta IV, Urtzi Telleria eta Idoia Etxeberria.

- **Aitzakariak.** Aierbe, Arria II, Arria III, Arria IV, Erasun, Nazabal, Peñagarikano, Azurmendi, Olasagasti, Arrospide, Jaunarena, Ugarteburu, Lopez, Arregi, Etxebeste, Agite, Mindegia, Larretxea, Elorriaga eta Mugerza.
- **Bazkaria.** 14:30ean, bazkaria Aburuza sagardotegian.

→ Laburrak

Iriarte kultur etxean bihar 20:30ean herri batzarra

ZIZURKIL > Bihar, hilak 25, Zizurkilgo ezker abertzaleak deituta, herri batzarra egingo dute. Iriarte kultur etxean izango da 20:30ean hasita. Bertan jorratuko den gaia, Udal hauteskundeak izango da. Herriar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartuzera.

'Baietz lortu' antzez-lana gaur 11:30ean izango da

IBARRA > Kultur Elejira zirkuituaren baitan, *Baietz lortu* antzez-lana ikusteko aukera izango da gaur. 11:30ean izango da. Monda eta Lironda taldearen eskutik izango da.

Bihar 20:30ean herri batzarra liburutegian

IKAZTEGIETA > Bihar 20:30ean herri batzarra egingo dute Kiroldegiko liburutegian. Ezker abertzaleak deitu du eta bertan Gernikako akordioa eta udal hauteskundeak jorratuko dituzte. Zalantzak argitzeko aukera izango da eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte.

'Euskal arrantzaleak Ternuan' hitzaldia Jon Maiaren eskutik

Gaur 19:30ean hasiko da. Kultur Etxean izango da eta azalpenez gain, irudiak ikusteko aukera eskainiko dute

E. Maiz Larraul

Larrauldarrak Kultur Astearen bete-betean daude. Atzo, Pello Joxe Aranburuk idatzitako *Larraul, historia baten hasiera* liburua aurkeztu izan zuten.

Gaur, Jon Maia bertsoaria izango dute hizlari. *Euskal arrantzaleak Ternuan* hitzaldia emango du. Hitzak entzuteaz gain, irudiak ikusteko aukera izango da. Kultur Etxean izango da 19:30etik aurrera. Interesa duen guztientzat atekak zabalik izango dira.

Bihar berriz, lehenik haurren txanda izango da. 17:30ean, *Euskal Mitologiaren ipuinak*, marrazki bizidunak ikusteko aukera izango dute Kultur Etxean. 19:30ean berriz, *Euskal Herriko Mitologia, Jentilen Aztarnen Atzetik* proiektioa izango da.

IRRIEN LAGUNAK KIKUBA
irrienlagunak.com

Azaroaren 27an eskuratu Pirritx eta Porrotxen 'Irria' aldizkaria zure kioskoan

BERRIA + 2€

LEIHO ISOLATZAILEAK

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

LeihoPRO

943 69 84 39



TELEFONIA MUGIKORRAK ALDATU BEHARRA DAUKA. HAS GAITEZEN.

SIMple

TELEFONIA MUGIKORRAK ALDATU BEHARRA DAUKA. HAS GAITEZEN.

SIMple

5 ZENT. / MIN NOIZNAHIL. NORNAHIRI. BETI.

euskaltel
zuretzat

Estatuko deialdi. Ez dira eskaintzen sorten zerbakil berridaztatuko deialdi, sare adimenduna, roaming-a eta nazioarteko deialdi. Deialdiaren ezarpen-kostua: 15 zenitimo. Hileko gutxieneko kontsumoa: 6 €. Alakua da deialdiaren 2011/02/1a baino lehen ondoan ordaintzeko modalitatean eta SIMplen aldi ematen dutenentzat. Zeharkako zerbakil ez daude sartuta.

Felix Baltistan Fundazioaren lana ezagutzeko aukera

Elkarteari buruzko erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean eta etzi hitzaldia emango dute bertako bi kidek

Erredakzioa Alegia

Felix Baltistan Fundazioak ia hamar urte daramatza Baltistanen, Pakistaneko Iparraldean, giza garapena bultzatzen garapen lankidetzako proiektuen bitartez. Fundazioak egiten duen lana ezagutzeko aukera dago egunotan Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan. Alde batetik, Fundazioari buruzko erakusketa dago ikusgai eta, bestetik, hitzaldia emango dute bertako bi kidek etzi.

Erakusketa hilaren 27a arte bisitatu daiteke Kultur Etxeko ludoetikan. Ordutegia 18:30etik 20:00etara da ostirala arte, eta larunbatean 10:30etik 13:00etara. Bertan Fundazioaren perspektiba historikoa jaso daiteke hainbat panelen bitartez.



Talis herrian uholdeek 38 etxe suntsitu zituzten. HITZA

Hitzaldia etzi izango da Kultur Etxean, 19:00etan, eta Ortzí Akizuk euskaraz eta Guillermo Maceirasek gazteleraz emango dute. Fundazioko bi kide horiek Baltistanen zeuden abuztuan montziaren euriak eskualdea gogorjo zuenean. FBF eta lekuko erakundeak emergentziako lehen erantzuna eman zuten janaria eta kanpadendak banatuz herritar-

rren artean. Orain, batutako diruarekin, lurjausiak, harriek eta lokatzak Talis herrian suntsitutako 38 etxe eraikitzen hasi dira. Fundazioaren berri emateaz gain, Akizuk eta Maceirasek Talis herrian egiten ari diren proiektuari buruz ariko dira, bai dirua nola bideratzen ari diren eta bai zer lan egiten ari diren Fundazioren kide pakistandarrak.

Etxebarrieta eta Okaberen bizipenak proiektio batean



Miyuki Okabe eta Eneko Etxebarrieta bere tandemean itsasoaren ondoan. HITZA

Hiru urte eta erdiz zeharkatu zuten Hego Amerika tandem batean eta horren proiektioa emango dute etzi

I. Garcia Ikaztegieta

Eneko Etxebarrietak eta Miyuki Okabek elkar ezagutu zuten Brasilen. Etxebarrieta bizikletan munduari itzulua egiten ari zela. Batera itzuli ziren Euskal Herrira eta hortik bi urtetara, Mundua Hurbilduz proiektua sortu eta Hego Amerikara abiatu ziren, az-

pikontinentea tandem batean zeharkatzeko asmoz. Ia hiru urte eta erdi eman zituzten bidaia horretan eta esperientzia horren proiektioa emango dute etzi Ikaztegiatan, 21:00etan, Liburutegian. Eneko Etxebarrietak azaltzen duenez, «lehendabiziko bidaiari ikusi nuen bizikleta oso interesgarria zela mundua ikusteko. Jendearekiko harremana oso sakona da». Bigarren bidaiari eskarmentu hori eta bien lanbideak aprobetxatzen saiatu ziren. «Miyuki telekomunikazioetan ingeniaria da eta ni irakaslea izateaz gain argazkilaria ere banaiz».

Mundua Hurbiltzen proiektua

bi zati zituen. Alde batetik, bidaia beraiekin bizitzeko aukera zabaldu zuten www.acercandoelmundo.com webgunearen bitartez. «Bizikletaz mugitzeaz batera, testuak eta argazkiak webguneari sartzeko genituen eta nahi zuenak gurekin birtualki bidaiatzen zuten».

Bestalde, proiektu solidarioa garatu zuten. «Unicefeko hementzeko kideekin hitz egin genuen eta interesgarria iruditu zitzairen erakunde horrek dituen proiektuak bisitatu eta horien berri ematea webguneari. Egun webguneari martxan dago eta hainbat erreportaje eta argazki daude bertan.

Josune Otamendi • Psikologoa

«Adinekoek nahiago dute etxean gelditzea»

Imanol Garcia Ikaztegieta

Josune Otamendi (Elduain, 1955) psikologoa hitzaldia emango du gaur, 17:30ean, Ikaztegiatiko Liburutegian. *Bakarrik bizitzea, bizikidetzaren alternatibak* izenburua du hitzaldia eta Aulas Kutxaren bitartez antolatuta dute.

Nola planteatzen duzu hitzaldia?

Hitzaldiak dinamikoak izatea gustatzen zait, jendeak hitz egiteko gogoia izan ohi du eta. Batez ere jorratuko dugun gaia harremanak izango dira, adinekoek izan ohi dituzten gorabeheri buruz: aldaketak, galerak, doluak, bizilagunak, alarguntzea... Horren inguruan bereiziko dut zer den bakarrik bizitzea ala bakardadean sentitzea. Umore gorabehera horiek aztertu eta gero indartu harremanen mundua: herrikoa, bizilagunekin, etxeko hiru belaualdiak...

Hitzaldiaren gaia, beraz, adinekoekin lotuta dago.

Hori da. Adinekoentzat eta zenbait mementotan menpekotasun larria dutenentzat ere. Dituzen laguntza motei buruz ere hitz egingo dugu: telealarma, babespeko apartamentuak... Hitzalditik onurak atera ditzake bere gurasoa adinekoa duten seme-alabek eta ez dakitenak nola kudeatu egoera hori.

Bakarrik egotea ez dela gaixo egotea dio hitzaldiari buruzko informazioak.

Pertsonak behar du ere gutxieneko autonomia. Bakarrik bizi daiteke eta ez bakarrik sentitu. Babestua sentitzen delako, badakielako norengana jo laguntza behar duenean. Bakarrik bizi bada baliabideak dituelako izango da. Gaixo dagoenak laguntza behar izaten du. Bakarrik bizi denak laguntza behar du, baina beste modu batean.



HITZA

Zer laguntza mota?

Egunerokoa egiteko izan daiteke: etxeko garbiketa, janariak egin... Zahartzaroarekin buruko gorabeherak hasten dira eta pertsona batzuk oso eroriak gelditzen dira: alargunak gelditu direlako, seme-alabak kanpoan bizi direlako... Animoak behar dituzte. Eta askotan nahikoa da bizilaguna goizean pasatzea eta galdetzea ea ondo dagoen eta beste bi kontu esatea.

Gero eta adineko gehiago daude.

Eta hori dela-eta antolatzen dira horrelako hitzaldiak, jendea biltzera bultzatzeko eta bere belduerrei eta kezkei buruz hitz egiteko. Garai batean zahar-etxeak eta babespeko apartamentuak nahiko modan egon dira eta erabili izan dira. Baina orain berriro ikusten da adinekoek nahiago dutela ondo zainduta egon baina etxean gelditzea. Hori bultzatzen ari dira orain eta sozialki horri begira antolatzen ari dira gauzak.

Zer kezka dituzte adinekoek?

Kezka baino gehiago beldurrak dituzte. Burua galtzearena, adibidez, edo seme-alabek maiteko duten ala ez zahar-etxe batera eraman dutelako. Hori errekonozitu behar zaie eta lasaitu gai horrekin. Ez da gogoz hartzen den erabakia askotan.

→ Laburrak

Ezker abertzaleak galdeketa buzzoneatu du

AMEZKETA • Amezketako ezker abertzaleak galdeketa bat buzzoneatu du hainbat gairen inguruan herritarren iritzia jasotzeko asmoz. Orria udaletxe azpian eta plazoletan jarritako postontzietan edo Ugarteko Goikoetxeanean utzi daiteke. Epea hilaren 30a arte da.

Mendi Asanbladaren bazkideen eguna igandean

ALEGIA • Alegiako Mendi Asanbladaren bazkideen eguna antolatuta du hilaren 28rako, igandea. Lehenbizi mendiri irteera egingo dute: Alegia-Altzo-Aristizabal-Iruina-Ugarte ibilbidea egingo dute mendizaleek. 10:00etan aterako dira, betiko lekutik. Bazkaria Ugarteko elkartearen egingo dute eta babarrunak jango dituzte. Itzulera 17:30ak inguruan izango da eta autobusean egingo dute Alegiarainoko bidea.

Jagoba Astiazaran • Musikaria

Abenduaren 10ean Leidorren estreinatuko da Alurr dantza taldearen 'Oinazez' ikuskizuna; berrikuntza gisa, musika zuzenean izango da emanaldian, eta bertarako abestiak egiteaz Astiazaran arduratu da.

«Oraingo honetan musikariak ikuskizunaren parte gara eta ez laguntzaile»

Esti Ezeiza Ibarra

Hamasei egun falta dira eta sarreak agortzeaz daude Alurr dantza taldearen *Oinazez* ikuskizunaren estreinaldirako. Tolosako Leidorren izango da eta oraingo honetan, dantzak berak ez ezik, musikak ere izugarritzko garrantzia du, zuzenean joko baitute eta espresuki bertarako sortuak izan baitira abestiak. Sorkuntza eta koordinazio lanaz Jagoba Astiazaran zestoarra arduratu da.

Proiektu honetan hasieratik hartu duzue parte, horrek nola eragin du?

Musikariak, hasieratik proiektuaren parte izan behar genuela erabaki genuen, eta sorkuntza lan guztian hori egon gara. Musikiariak ikuskizunaren parte izan gara, eta ez laguntzaile bakarrik. **Beraz, oraingoan ez zarete zuek izan koreografiatara egokitu zaretanak.** Berrikuntza da eta horrelako talde batean are eta gehiago. Ikuski-zunerako bereziki bost abesti sortu ditugu. Hor ikusten da, musikariak ere, gure aldetik, zerbait berezia ematen ari garela.

Horrek, konposatzerako garaian eragingo zuen, garbi izan behar baitzenuten hasieratik koreografia bat egin behar zela horren gainean.

Hasieratik Alurreko zuzendariarekin eta beste hainbat kiderekin bildu ginen, eta zer adierazi nahi genuen erabaki. Honen haritik, gai bat zehaztu zen, eta gai hau nola islatu zitekeen ikusi, baita horretarako zer nolako musika zen egokiena ere adostu zen. Hor, konturatu ginen, nahiz eta dantza garaikideak egin nahi genituen, oro har, erabiltzen zen musika oso tradizionala zela. Horregatik, azkenean, kutsu tradizionalako instrumentuak erabili arren musika garaikidea sortu dugu.

Alurrekin lehenagotik ere egin izan duzue lan, baina ez horrela.

Hasieratik erakarri gintuen taldea da hau eta ia Ibarra egin gara esan dezakegu. Orain arte noiz behinkako lanak egin ditugu edo ikuskizun bateko zati zehatzak, baina azken hau proiektu baten bukaera izan da.

Tradizioaren eta abangoardiaren arteko borroka islatzen omen ditu Oinazez-ek, musikan ere hau transmititu nahi izan al duzue?

Bai, hori izan da oinarria. Lehen aipatu bezala, bertan entzun ahal izango diren instrumentuak tradizioz datoz, baina denak ere, bide berritzaileago batetara doaz.

Musikan, zertan bereizten dira tradizionala eta garaikidea?

Musikan lengoia da aldatzen dena. Kantu tradizionalan oinarritu arren, lengoia modernoagoa erabiltzen da, publikoarentzako, entzuteko, askoz ere gorreragoa dena. Alurreko dantzariak jada ohitu dira, baina hasieran fandango berritzaile bat aurkeztean, oso entzungaitza egin zitzaizkien eta ez zuten erritmoa aurkitzen. Jendea oraindik musika hori entzuten ez dago ohitua. Tradizionala denona da, herrikoa, denok ezagutzen eta ulertzen duguna, baina garaikidea, oraindik ere arrotza egiten zaigu. Batzuetan gogorra eta bestetan, oso goxoa da.

Alurrek orain arte erabilitako musika, eraginkoragoa dela esango al zenute?

Musika mota honek ez du lortuko bestearen efektua. Bestearna askoz ere zuzenagoa da. Hemen, publikoa, une batzuetan agian beldurtu egingo da, baina beste batzuetan harrituta geratuko da, inoiz entzun eta ikusi ez duen gauza baten aurrean topatuko delako. Harridura hori eta talka da gainera lortu nahi duguna. Dantzen arteko talka nabarmenak



ESTI EZEIZA

ikusiko dira emanaldian, kontrastea erakustea baita gure asmoa.

Zuen musika joeren eta Alurren artean ere talkak egon dira.

Gu musikari profesionalak gara eta hortik bizi gara. Ikasketen baitan, musika garaikidea landu dugu, eta betidanik ezagutzen dugu. Baina Alurr nahiko dantza talde tradizionala da, eta gure lanak aurkeztean, nolabaiteko talka egon da bien artean.

Alurr, profesionala ez den dantza talde bat izatean, erronka handiagoa dela esan daiteke.

Bai, hori da, Alurr bezalako dantza talde batentzat hau izugarria da. Hala ere, musikariontzat nahiz dantzariarentzat proiektu hau gure gogoz egindako gauza bat izan da, hau da, gu ere beraien amateurtasun horretara hurbildu gara, baina aldi berean, gauzak erakutsiz, gure profesionaltasuna ekartzen ere saiatu gara.

Emanaldian zuzenean joko duzue. Horrek onurak baina zailtasunak ere gehitzen ditu. Nola aurkitu duzue dantza eta musikaren arteko oreka?

Gu ikusleentzat itzal bat izango gara, ez gara presente egongo ikuskizunean. Honela jendeak arreta dantzan jarriko du. Oso zaila zen oreka hori aurkitzea, baina lortu dugula esan dezakegu. Musika oso garaikidea eta gogorra izatean, atentzioa ematen zuen, baina itzal bihurtzearekin, aldea txikitzea eta oreka mantentzea lortu dugu.

Tolosako Leidorreko emanaldia luxuzkoa izango dela esan behar da. Estreinaldia izatean, zuzenean joko baituzue.

Tolosakoan bai, zuzenean eszenatoki gainean ariko gara, baina guretzat lan bat ez denez, ezin gara konprometitu emanaldi guztietarako. Zazpi musikari gara, eta bat falta bada, ezin baitugu egin, hala ere, saiatuko gara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neuniko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

HITZALDIAK

- **Aduna.** *Lehen sektorea, produktu ekologikoak* hitzaldia emango du EHNEk, 20:00etan, Kultur aretoan.
- **Larraul.** *Euskal arrantzaleak* *Ternuan* hitzaldia izango da Jon maiaren eskutik. Irudiekin lagunduko du. 19:30ean, Kultur Etxean.
- **Tolosa.** *Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Historia* aztertuko dute, 19:00etan, Kultur Etxean, Emagin eta Bilgune Feministako kide diren Miren Arangurenekin eta Edurne Epelderekin.

■ **Villabona.** Mitxel Sarasketa eta Begoña Sagarzazu preso ohiek hitzaldia emango dute, Migel Zalakainen heriotzaren 20. urtemuga dela eta, udal-etxean, 19:00etan.

ANTZERKIA

- **Aduna.** Ipuin kontaketa saioa izango da Oihana Etxegibelen eskutik, 17:30ean, Kultur Aretoran.
- **Ibarra.** Monda eta Lironda antzerki taldearen *Baiez lortu* antzezlan izango da ikusgai, 11:30ean, Kultur Etxean, Kultur elejiraren barruan.

Agurrak



Zorionak Maria!
Diogenesiak zugar
luzaroen jarrai dezala!

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 6510 40.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.2.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunak.

Elkarrizketa

Miren Aranguren • Emagin eta Bilgune Feministako kidea

«Gurean besteetan baino gazte gehiago inplikatzeko da»

Iñigo Terradillos Tolosa

Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna da bihar-koa, eta hainbat ekintza antolatutuzte erakunde eta elkarteek gizartea sentibilizatzeko aldera. Tolosako Udaleko Jabekuntza Eskolaren barruan, esaterako, Euskal Herriko mugimendu feministaren historia landuko dute gaur, Tolosako Kultur Etxean, 19:00etan. Miren Aranguren eta Bilgune Feministako kideek emango dute hitzaldia.

Nola osatuko duzue hitzaldia?

Duela bi urte Emagin dokumentazio zentrotik lan bat egin genuen Euskal Herrian mugimendu feministak azken 30 urteetan izan duen bilakaeraren inguruan. Batetik mugimendu feministak izan dituen antolatze-ko moduei erreparatu genien, eta antolaketa mapa bat osatu ge-



IOTEGI/ARGAZKI PRESS

nuen. Bestetik, 1970. urtetik aurrera eraman dituzten borroka aztertu ditugu. Hori guztia azalduko dugu gaurko hitzaldian. **Zuen ikerketatik zer azzimarratuko zenuke?** Mugimendu Feministaren sorrera delako, bai Edurne eta bai Mirenan jaio ginelako edota mugimendu feministaren teorizazioa-

ren abiapuntua izan zelako, 80. hamarkadak mugimendu feministaren aldetik izan zuen opor-atasunaz jabetzea izan zen berezie- na. Bagenekien mugimendu so- ziala oso garrantzitsua izan zela garai horretan Euskal Herrian, baina ez genuen uste mugimendu feministak hainbesteko pisua izango zuenik, bai antolaketa al- detik, bai eta ekintzei dagokiene- an.

Euskal Herriko mugimendu feministaren egoera nola deskribatuko zenuke?

Euskal Herrian talde ugari dau- de, agian mugimendu feministan nahiko genituzkeenak baino gu- txiago, baina antolaketa aldetik pauso handiak eman dira. Azken urteak oso oparoak izan dira, eta talde berri ugari sortu dira herrie- tan. Beste lurraldeetan baino gaz- te gehiago inplikatzeko direla gu- rean esango nuke.

• tolosa@hitza.info



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Eluska Jatetxean bi pertsonentzako otordua

Euskal-Herria kalea, 12 • IBARRA
Tel. 943 671374



② Sarrerak

Tolosan ospatuko den **Elkartasun Eguneko** kontzerturako sarrera pare

Azaroak 27 • Larunbata
20:30etatik aurrera
Tolosako Ferialekuan



③ Sarrerak

Saskibaloi partidarako sarrera pare

Azaroak 28 • 18:00etan
Donostiako Ilunben



LAGUN ARO GBC
Power Electronics Valencia

④ Sarrerak

Alurr Dantza taldearen **Oinazez** ikuskizunaren estreinaldirako 2 sarrera pare

Abenduak 10 • Ostirala
22:00etan • Tolosako Leidorren



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zien eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunearn, 09:00etatik 17:00etara, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.